


GR® 11. 7. ETAPA. OTSAGABIA-IZABA



Etapa Otsagabiatik abiatzen da, Jaunxeberradre bordara igotzeko eta handik Arotza mendatera, eta Zotraperaino igotzen jarraitzeko. Pista utziko dugu, pinu arteko toki belartsu batetik igotzeko, eta bertan bat egingo du Erronkariarren Abelbidea. Lakuagan, inguru oihantsuago batean sartzean, putzu bat aurkituko dugu eskuinean, eta bertatik igarotzen da Erronkariarren Abelbidea eta GR® 11tik bereizten da. Pista altuera galtzen joango da oso leunki. Hegoalderantz bira egiten duen toki batera iritsiko gara, Milingrate Kakueta/Milingrate Peña Blanca pean. Bidexka batetik jarraitu behar da igotzeko eta pagadi batean sartzeko, Saitsederra lepoan. Saitsederreko mazelentan, soilgune baten ondotik, bira handi bat egin behar da eta jaitsi. Idoia baselizara eta Izaba herrira iritsiko gara.